



## LAUDIO IBAR NOBLEAREN UDALA

## AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO

2015 / 13 AKTA

ACTA 13 / 2015

**Bilera:** Ez ohiko eta premiazko Osoko Bilkura.  
**Eguna:** 2015-07-20  
**Ordua:** 18:15 – 18:25  
**Tokia:** Herriko Etxeko Bilkura Areto nagusia.

**Sesión:** Extraordinaria y urgente de Pleno  
**Día:** 20-07-2015  
**Hora:** 18:15 – 18:25  
**Lugar:** Salón Sesiones Municipal.

**Bertaratuak:**

Jon Ander Altube Lazkano, jarduneko Alkatea.  
 Amets Meaza Castañares, BILDUko zinegotzia.  
 Iñigo Martínez Cerrillo, BILDUko zinegotzia.  
 Juanma Ibarretxe Revuelta, EAJko zinegotzia.  
 Mainer Basterra Ibarretxe, EAJko zinegotzia.  
 Ander Añibarro Maestre, EAJko zinegotzia.  
 Eva Marquínez Blanco, EAJko zinegotzia.  
 Izaskun Miñano Larrea, EAJko zinegotzia.  
 Álvaro Barrios Medina, OMNIAko zinegotzia.  
 Nerea Gonzalez Garcia, OMNIAko zinegotzia.  
 Jakinda Artaraz Martín, OMNIAko zinegotzia.  
 Aitor Anchia Escobar, OMNIAko zinegotzia.  
 Iñigo Pedruzo Abásolo, PPko zinegotzia.

**Asistentes:**

Jon Ander Altube Lazkano, Alcalde en funciones.  
 Amets Meaza Castañares, concejal de BILDU.  
 Iñigo Martínez Cerrillo, concejal de BILDU.  
 Juan Manuel Ibarretxe Revuelta, concejal de PNV.  
 Mainer Basterra Ibarretxe, concejal de PNV.  
 Ander Añibarro Maestre, concejal de PNV.  
 Eva Marquínez Blanco, concejal de PNV.  
 Izaskun Miñano Larrea, concejal de PNV.  
 Álvaro Barrios Medina, concejal de OMNIA.  
 Nerea González García, concejal de OMNIA.  
 Jakinda Artaraz Martín, concejal de OMNIA.  
 Aitor Anchia Escobar, concejal de OMNIA.  
 Iñigo Pedruzo Abásolo, concejal de PP.

**Ez bertaratuak:**

Jon Iñaki Urkixo Orueta, alkatea.  
 Isabel Bóveda Urioste, BILDUko zinegotzia.  
 Txaro Sarasua Diaz, PSE-EEko zinegotzia.  
 María Dolores Muriel Aroca, PSE-EEko zinegotzia.

**No asisten:**

Jon Iñaki Urkixo Orueta, Alcalde.  
 Isabel Bóveda Urioste, concejal de BILDU.  
 Txaro Sarasua Díaz, concejal del PSE-EE.  
 María Dolores Muriel Aroca, concejal del PSE-EE.

Beatriz Carrero Vegas, Aldirako idazkaria.

Beatriz Carrero Vegas, Secretaria accidental.

Jarraian eta lehendakaritzaren aginduz, eguneko gaien zerrendan sartutako gaiak aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako erabaki hauexek hartu ziren:

A continuación y de orden de la Presidencia se procedió al estudio y debate de los asuntos incluidos en el Orden del Día, adoptándose los siguientes acuerdos:

**73.- 2015-07-20EKO APARTEKO ETA PREMIAZKO UDALBATZAKO OSOKO BILKURAKO PREMIA BERRESTEA.-BERRETSITA.**

Alkatetzak 15-07-20rako aparte eta premiazko Osoko Bilkura deialdia egin du, eguneko gaien zerrendan sartutako gaiekin, Toki Erregimeneko

**73.- RATIFICACIÓN DE LA URGENCIA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA Y URGENTE DE PLENO DEL 20-07-2015.-RATIFICADA.**

Convocada sesión extraordinaria y urgente de Pleno por la Alcaldía para el 20-07-15, con los asuntos incluidos en el orden del día, en base a lo



Oinarriak Arautzen dituen 7/85-04-2 Legeko 46.2.b eta Udalaren Antolamendurako Araudiko 57-3 artikuluan aurreikusitakoaren indarrez, dagozkion erabakiak hartu aurretik, derrigorrekoa da Udaltzako deialdiaren premia berrestea, horregatik Alkatzaren proposamenez Udaltzako erabaki du:

Lehen.- Berrestea ez ohiko eta premiazotasunaren deialdia.

**Segituan bozkatu da eta bertaraturakoek aho batez berretsi dute, eta botazioaren emaitza hauxe izan da:**

**Alde: BILDU (3), EAJ/PNV (5), OMNIA (4) eta PP (1).**

previsto en el Art. 46.2.b) de la Ley 7/2-04-85 Reguladora de las Bases de Régimen Local y Art. 57-3 del Reglamento Orgánico Municipal, previo a la adopción de los acuerdos correspondientes es preciso que el Pleno ratifique la urgencia de la convocatoria por lo que a propuesta de la Alcaldía el Pleno acuerda:

Primero.- Ratificar la urgencia de la convocatoria de sesión extraordinaria y urgente.

**Sometida a votación, es ratificada por unanimidad de los presentes, con el siguiente resultado:**

**A favor: BILDU (3), EAJ/PNV (5), OMNIA (4) y PP (1).**

**74.- OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANAREN 2016-2017KO PROGRAMAREN BARRUAN DIRU-LAGUNTZA ESKATZEA.-**

**EBAZPEN PROPOSAMEN TEKNIKO-ADMINISTRATIBOA ETA ALKATETZA-LEHENDAKARITZARENA, OBRA, ZERBITZU MANTENTZE-LAN ETA LANDA INGURUNEAREN ARLOKO ZINEGOTZI ORDEZKARI LAGUNTAILEAREN BIDEZ, AURRETIKO HIRIGINTZA ETA INGURUMEN ETA OBRA, ZERBITZU, MANTENTZE-LAN ETA LANDA INGURUNEAREN ARLOETAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENAZ.**

Maiatzaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 27/2015 Foru Dekretuaren bidez, onartu egiten da Obra eta Zerbitzuetako Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei 2012-2015 aldirako laguntzak emateko deialdia. Obra, Zerbitzu eta Mantentze-arloan, ondoren zehazten diren proiektuak hautatu dira diru-laguntza deialdian sartzeko:

**74.- SOLICITUD DE SUBVENCIÓN AL PROGRAMA 2016-2017 DEL PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS.- PROPUESTA DE RESOLUCIÓN TÉCNICO-ADMINISTRATIVA Y DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA, A TRAVES DE LA CONCEJALÍA DELEGADA ADJUNTA DEL ÁREA DE OBRAS, SERVICIOS, MANTENIMIENTO Y MEDIO RURAL, AL PLENO DE LA CORPORACIÓN MUNICIPAL, PREVIO DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE Y OBRAS, SERVICIOS, MANTENIMIENTO Y MEDIO RURAL.**

A la vista del Decreto Foral 27/2015, del Consejo de Diputados de 15 de mayo, que aprueba las bases reguladoras y la convocatoria para la concesión de las ayudas a las entidades locales del Territorio Histórico de Álava para el periodo 2016-2017 por el Plan Foral de Obras y Servicios, por el Área de Obras, Servicios y Mantenimiento han sido seleccionados los siguientes proyectos que pudieran acogerse a la citada convocatoria de subvenciones:

Obraren izena	Aurrekontua
ZUBIKO KURAJO, MAESTRO ELORZA ETA JOSE MATIA KALEAK URBANIZATZEKO LANAK. III. FASEA: ZUBIKO KURAJO.	1.233.984,55 €
"SAN ROQUE" EGOITZA ZAHARRA BIRGAITZEA ETA	Egiteke



<b>HORREN KANPOKO ESPAZIOAK BERRIRO URBANIZATZEA</b>	
--	--

Denominación de la obra	Presupuesto
<b>OBRAS ORDINARIAS PARA LA URBANIZACIÓN DE LAS CALLES ZUBIKO KURAJO, MAESTRO ELORZA Y JOSÉ MATÍA. FASE III: ZUBIKO KURAJO.</b>	<b>1.233.984,55</b>
<b>REHABILITACIÓN DE LA ANTIGUA RESIDENCIA "SAN ROQUE" Y REURBANIZACIÓN DE SUS ESPACIOS EXTERIORES</b>	<b>Pendiente</b>

Ikusirik aurreko guztia, hala nola apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21. artikulua eskleitutako eskumenak, aldez aurretiko Hirigintza eta Ingurumen eta Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa Ingurunearen Arloetako Informazio Batzordearen irizpenaz eta Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa Ingurunearen Arloetako Zinegotzi Ordezkarri laguntzailearen bidez, Alkate-Lehendakariak proposatuta, Udalaren Osoko Batzarrak hartu du ondorengo

Visto todo lo anterior, así como las competencias que el artículo 21 de la Ley 7/1985 del 2 de abril le otorga, y con el dictamen previo de la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno, y a propuesta del Concejal Adjunto del Área de Obras, Servicios y Mantenimiento, la Alcaldía-Presidencia propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente

ERABAKIA:

ACUERDO:

**LEHENA.- Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2016-2017ko Programaren barruan sartzeko, jarraian adierazten diren obrak ESKATZEA:**

**PRIMERO.- SOLICITAR,** para su inclusión en el **Programa 2016-2017 del Plan Foral de Obras y Servicios** las obras que a continuación se señalan:

Obraren izena	Aurrekontua
<b>ZUBIKO KURAJO, MAESTRO ELORZA ETA JOSE MATIA KALEAK URBANIZATZEKO LANAK. III. FASEA: ZUBIKO KURAJO.</b>	<b>1.233.984,55 €</b>
<b>"SAN ROQUE" EGOITZA ZAHARRA BIRGAITZEA ETA HORREN KANPOKO ESPAZIOAK BERRIRO URBANIZATZEA</b>	<b>Egiteke</b>

Denominación de la obra	Presupuesto
<b>OBRAS ORDINARIAS PARA LA URBANIZACIÓN DE LAS CALLES ZUBIKO KURAJO, MAESTRO ELORZA Y JOSÉ MATÍA. FASE III: ZUBIKO KURAJO.</b>	<b>1.233.984,55</b>
<b>REHABILITACIÓN DE LA ANTIGUA RESIDENCIA "SAN ROQUE" Y REURBANIZACIÓN DE SUS ESPACIOS EXTERIORES</b>	<b>Pendiente</b>



**BIGARRENA.-** Toki erakunde eskatzaileak bere gain hartzen du aipatutako planaren barruan sartzen diren obra edo zerbitzuak eta hala dagokienean, horien ordainsariak osorik finantzatzeko ardura, baita gai honi buruzko arautegian laguntzak emateko ezarritako baldintza guztiak betetzeko ere.

**HIRUGARRENA.-** Erakundeak erabilgarri dituen finantza baliabideak, 2015ko ekitaldirako gastu arrunten aurreikuspenak eta konprometitutako inbertsioak deskontatu eta gero, honakoak dira:

**SEGUNDO.-** Que la Entidad Local solicitante se hace responsable de la financiación total de aquellas obras o servicios y, en su caso, de los honorarios correspondientes que sean incluidos en el citado Plan, así como del cumplimiento de todas las condiciones previstas para su concesión en la Normativa Reguladora.

**TERCERO.-** Que el importe correspondiente a los recursos financieros disponibles de la entidad, una vez descontadas las previsiones de gastos corrientes para el ejercicio 2015 y las inversiones comprometidas es el siguiente:

Eskatutako lanak finantziatzeko baliabide erabilgarriak. Diruzaintzain dagoen soberakina / Bestelako berezko finantziazioa.	<b>Egiteke</b>
---	----------------

Recursos disponibles para destinar a la financiación de las obras solicitadas. Remanente de tesorería / Otra financiación propia.	<b>Pendiente</b>
---	------------------

**LAUGARRENA.-** Honekin batera bidaltzen da, obra bakoitzerako, **Obraren fitxa**, horren edukia erakunde honek espresuki onartuta dagoelarik.

**CUARTO.-** Que adjunto se acompañan para cada obra, **Ficha de obra** cuyo contenido queda expresamente aprobado por esta Entidad.

**JON ANDER ALTUBE (eus).-** Orain duela gutxi, ordu batean egin dugun Hirigintza Batzorde batean jorratu dugu. Gainetik bada, behintzat, nahiko ondo landutako gaia da hemen etorri aurretik, ekainaren 24ko Bozeroale Batzordean aipatu, jorratu genuen behintzat, eta uztailaren 23ko Batzordean eta gaur bertan 20, Hirigintza Batzordetan diru-laguntza eskaera hau aztertu dugu. Proposamenean bertan agertzen diren zenbakiekin eta, bi proiektu dira, 2016-2017 Foru Planaren deialdi honetara aurkezten ditugunak.

**JON ANDER ALTUBE (eus).-** El asunto se ha tratado en la Comisión de Urbanismo que hemos tenido hace poco, a la una. Es un asunto que al menos en principio se ha trabajado bastante bien: antes de venir aquí, se mencionó y trató en la Comisión de Portavoces del 24 de junio, en la Comisión del 23 de julio y hoy mismo, día 20, también se ha tratado esta solicitud de subvención en la Comisión de Urbanismo. Los números aparecen en la misma propuesta que corresponde a los dos proyectos que hemos presentado a la convocatoria del Plan Foral 2016-2017.

Lehenengoa, nik uste dut argi eta garbi dagoena, egiten ari garen eta indarrean dagoen obra horren III. Faseari ekitea, Matia Zubiko obra handi horren III. Fasea. Horretarako miloi eta berrehun mila inguruko aurrekontua daukagu eta hori da deialdi aurkezten duguna.

El primero, que creo que está bastante claro, es el correspondiente a la fase III de esa gran obra que se está llevando a cabo en Matía Zubiko. Para ello, contamos con un presupuesto de aproximadamente un millón doscientos mil euros, que es se ha presentado a la mencionada convocatoria.

Eta gero badaukagu bigarren proiektu hau, 2.400.000 ingurukoa. Hori da aurkezten dugun aurrekontua Egoitza Zaharra berritzeko.

Y después tenemos este segundo proyecto de aproximadamente 2.400.000 euros. Corresponde al presupuesto que hemos presentado para renovar la



vieja residencia.

Lehen gainera, 13an bertan, Batzordean, Egoitza Zaharraren errehabilitaziorako proiektua ezagutu ahal izan genuen, baina bueno, ez geneukan informazio guztia. Eta bueno, talde batean proposamenez erabaki zen gaur bertan diktaminatzea, estimazio ekonomiko zehatzago bat edukiko genuelakoan. Horrela izan da eta bai esan nahiko nuke, bigarren proiektu honi dagokionez, bigarren eskaera hori dagokionez, aurre egitasmo bat, aurre proiektu bat baino ez dugula aurkezten. Estimazio ekonomiko badago. Estimazio ekonomiko hori obra osoarena litzateke. Horrek ez du esan nahi gero horren errebisio egin ez daitekeenik, edo obra hori ere, fase eta banatu ezin daitekeenik eta batez ere, egin nahi izan duguna, batetik, bermatu deialdi barrua uste dugulako eraikin hau egokia izan litekeela deialdi barruan sartu, epe barruan, baino bestetik, nahi eta ez hedabideen buruan suertatu beharko den eztabaida hori bermatuz.

Orduan, nik uste dut badaukagula nahiko oinarritua egon daitekeen aurre egitasmo bat, aurrekontu batekin, horrekin aurkeztu egiten gara eta bien bitartean astia edukiko genuke benetan eztabaidatzeko, zertarako nahi dugun zelan egin nahi dugun proiektu hori, erabilera eta abar.

Hori litzateke gutxi gora-behera, nik uste dut bai gaur eguerdian eta lehenengo astean sakon hitz egin genuela honen inguruan Batzordean.

Besterik ez badago, eta gero, zera, galderarik edo beste zalantza baldin badago, hau da momentua argitzeko.

**IÑIGO PEDRUZO (cast).**- ¿Me podrías explicar si en la rehabilitación cabe la posibilidad de que se le haga por fases o toda completa, de una vez?

**JON ANDER ALTUBE (eus).**- Agian ez da ulertu, baina hori daude... Bai, agian azkarregi esan dut.

Bai, aukera hori, egon badago. Honek egiten duena da aurreproiektu honek aurrekontu oso bat aurkezten du eta esaten duena da: *'Eraikin osoa gehi ingurunean daukan espazio osoa, gehi dagoen beste eraikin txikiago hori'*, horretarako gutxi gora-behera, estimazio ekonomikoa daukagu.

Baina hau gero faseka egin behar dugu, are gehiago, momentu honetan egiten ari garen eta

Además tuvimos ocasión de conocer el proyecto de rehabilitación de la residencia vieja pero, bueno, no teníamos toda la información. Y bueno, se decidió en una reunión dictaminar sobre ello hoy mismo, pues creíamos que tendríamos una estimación económica más precisa. Así ha sido y, en cuanto a este segundo proyecto, a esta segunda petición, me gustaría subrayar que estamos ante un sólomente anteproyecto. Existe una estimación económica. Esa estimación económica sería para toda la obra. Lo cual no quiere decir que luego no se pueda revisar, que no se pueda dividir la obra en fases. Lo que hemos querido hacer, sobre todo, es garantizar que entraba dentro del plazo de la convocatoria, porque creemos que es adecuada y, por otro lado, hemos querido garantizar que se daba el correspondiente debate en los medios.

Por tanto, creo que sea ha fundamentado suficientemente este anteproyecto, con su presupuesto. Con todo ello nos presentamos y, mientras tanto, tendremos tiempo de discutir realmente para qué queremos el proyecto, cómo queremos hacerlo y cuál será su uso.

Y eso es todo, poco más o menos. Creo que se ha hablado largo y tendido hoy al mediodía y la semana pasada en la correspondiente Comisión.

Si no hay otro particular, pasaremos al siguiente punto, pero si existen dudas o preguntas al respecto, este es el momento.

**IÑIGO PEDRUZO (cast).**- Azalduko al zenidake birgaitzea faseka egiteko aukerarik dagoen edo osorik, kolpe bakarrean egingo den?

**JON ANDER ALTUBE (eus).**- Puede que no se haya entendido, pero hay... Sí, igual lo he dicho demasiado rápido.

Sí, existe esa posibilidad. En este anteproyecto se presenta un presupuesto completo, que dice lo siguiente: *"Todo el edificio, mas el espacio a su alrededor, mas ese otro edificio más pequeño"*, y para eso tenemos una estimación económica aproximada.

Pero esto luego hay que hacerlo por fases, es más: en estos momentos se esta haciendo en el



eskatzen ari gara José Matia Zubiko Kurajo eremu horretako guztiarako III. Fasea, proiektu hori jatorrian, fasekazio barik pentsatu zen eta proiektu oso bat izan zen. Eta gero bere bideragarritasuna bermatu ahal izateko hiru fasetan banatu zen.

Beraz, aukera hori, egon badago eta hastear dira.

**ÁLVARO BARRIOS (cast).**- Zubiko-Kurajoko hirugarren fasearen proiektuari buruz eztabaidatu nahi genuen, ez dugulako zalantzarik. Oso argi dago gure hauteskunde programan eta, beraz, logikoki, aurreko bi faseak bukatzea baino ez litzaiguke geratuko.

Eta San Roke egoitzari dagokionez, lehenik eta behin, gauzak finkatu eta bistaratu nahiko genituzke, kontuan hartzeko moduko zenbatekoaz ari garelako. Nahiko aurrekontu handia da eta, uste dugu Gobernu Taldeak azken faserako ahal beste murrizteko asmoarekin egingo duela lan, batez ere, kontuan hartuta Foru Planaren barruan Aldundiak exijitzen digula maximoak lortzeko lan egitea.

Eta gero, azken eta behin betiko puntu gisa, argi utzi nahi dugu prozesu parte hartzailea nahi dugula. Geroago aipatuko dugu berriro proiektu honen inguruko bi gai zehatzetarako: batetik, lanen egikaritze-proiektua bera definitzea, hau da, proiektuaren faseak, ezaugarriak etab. eta, batez ere, emango dizkiogun behin betiko erabilerak zehaztea. Kontua da ez ersotea aparkalekua autoa erosi aurretik, hau da, lehenik eta behin, emango dizkiogun erabilerak definitu behar ditugu prozesu parte hartzaile baten bidez, proiektua ahalik eta modu ekonomiko eta egokienean molda dadin erabilera horietara. Besterik ez.

**JUAN MANUEL IBARRETXE (cast).**- Tira, lehenago esan dudana errepikatuko dugu: gure aldarrikapen historikoa da hau, alegia, herrian geratzen zaizkigun eraikin historiko urriei erabilera ematearena. Hainbat elkartek euren jarduerak behar bezala bideratzeko lokal eske ari dira eta, aldi berean, eraikin historiko gutxi batzuk geratzen zaizkigu oraindik, zaindu eta babestu beharrekoak. Hau da horietako bat. Ez da bakarra, baina, tira, horrekin hasiko gara.

área de José Matía – Zubiko Kurajo la tercera fase de la obra y el proyecto, en principio, se pensó sin faseación, como proyecto entero. Después se dividió en tres fases para garantizar su viabilidad.

Por tanto, existe esa posibilidad y se comenzará en breve.

**ÁLVARO BARRIOS (cast).**- Queríamos comentar el proyecto de la tercera fase Zubiko-Kurajo porque no tenemos ninguna duda. Está claro en nuestro programa electoral o sea que, sólo quedaría la lógica finalización de las dos fases anteriores.

Y respecto al tema de lo de la residencia San Roque, sí que nos gustaría, primero, fijar y visualizar que es un montante importante de dinero. Es un presupuesto bastante elevado, que dentro de lo posible, que va en la función, me imagino, que el Equipo de Gobierno trabajará en esa línea, reducir lo máximo posible ese presupuesto en la fase definitiva, sobre todo desde el punto de la vista de la exigencia de Diputación de que vayamos a por los máximos posibles, dentro de la subvención que parte del Plan Foral.

Y luego también, como punto definitivo y último, que queremos dejar constancia, que sea un proceso participativo. Lo tocaremos a posteriori para dos temas en concreto sobre este proyecto: uno, la definición final del proyecto de ejecución de la misma obra, tanto las fases como las características del proyecto, etc., y sobre todo, de los usos definitivos que vamos dar a ello. Y que no hagamos, no compremos el garaje antes de comprar el coche, es decir, que primero definamos un proceso participativo de los usos que se van a dar, para intentar amoldar de la forma más económica y más adecuada el proyecto a esos usos que estamos dando. Nada más.

**JUAN MANUEL IBARRETXE (cast).**- Bueno, nosotros, abundando en lo que he dicho antes, ha sido una reivindicación histórica nuestra, también darles un uso a los pocos edificios históricos que nos quedan en el pueblo. Tenemos una serie de asociaciones culturales y demás, que están demandando espacios para realizar su actividad, y a la vez, tenemos poquitas cosas todavía, poquitos edificios nos quedan históricos que tenemos que salvaguardar. Éste es uno de ellos. No es el único, pero bueno, vamos a empezar por ahí.



Gero, emango zaion erabilerari dagokionez, Gobernu Taldearekin bat gatoz, beste alderdi batzuetan bezala. Geroago aztertu egin beharko da. Izan ere, gauza erakargarria da mundu guztiarentzat eta guk eskuragarri dauden espazioak herriko kultur talde guztien artean bidezko moduan banatzeko betebeharra dugu.

Beraz, gu horren alde.

**ÁLVARO BARRIOS (cast).**- Igual no me he expresado bien. No me refería tanto a de qué manera y a quién se va a dar ese uso, eso se decidirá mediante el proceso participativo, sino sobre todo que definamos el uso antes de decidir el crédito definitivo de ejecución, porque sobre todo, a nivel presupuestario se puede ahorrar mucho dinero si sabes exactamente para qué fin se va a dar, que no hagamos la casa de Roque, es decir, algo que sirva para todo, y que al final nos cueste mucho más y que encima no sea algo más dedicado para ese uso. Me refiero a especificar el uso, incluso antes de decidir el proyecto definitivo con sus objetivos fundamentales y que sea lo más efectivo posible. A eso me refería.

**JON ANDER ALTUBE (eus).**- Bai, agian honen inguruan ondo azaltzeko, aurreproiektu bat daukagu, ez da exekuzio proiektu bat, badaukagu aurrekontu bat. Nik uste dut, horretan nahiko zuhurra, nahiko zuhurtziaz jokatu dugula eta hori litzatekeela, nik uste dut exekuzio proiektu batean, eta batez ere, zehazterakoan benetan zer nahi dugun, hor kostuak merkatuko direla bai ala bai. Hori argi eta garbi.

Eta gero, bestetik, baita ere aurrekontuaz ari garela, diru-laguntzaz egiten dugun aurreikuspena ere, oso moderatuak eta prudentziak agintzen duela, eta orduan badaukagu, alde batetik, baditugu diru-laguntza batzuk eta baditugu gutxiengo gastu batzuk bermatuta, edukiko genituzke, bestetik, kostu horiek, ba nik uste dut, gero exekuzio proiektuari egiterakoan eta benetan zehazterakoan zeintzuk diren erabilerak, hori dezente merkatuko da.

Eta, zuk esan duzuna, exekuzio proiektua egin aurretik jakin beharko dugu hor zer egingen dugu. Baina honek ahalbidetzen duena da guk zerbait aurkeztu behar genuela Aldundian. Zerbait horrek eduki behar zuen gutxieneko entitate eta honekin uzten dugu. Exekuzio proiektuan horren

Luego, el uso que se le vaya a dar y demás, ésta es una de las cosas en que estamos de acuerdo con el Equipo de Gobierno. Hay que analizarlo después. Porque claro, es una cosa golosa, para todo el mundo, y nosotros estamos en la obligación de repartir equitativamente entre todos los grupos culturales que hay en el pueblo, todos los espacios disponibles.

Nosotros estamos a favor.

**ÁLVARO BARRIOS (cast).**- Agian ez dut nire burua behar bezala ulerrarazi. Ez nintzen erabilerari nori eta nola eman aipatzen ari, hori prozesu parte hartzaile baten bidez erabakiko da, esan nahi dudana da egikaritzeko azken kreditua erabaki aurretik erabilerari definitu behar dugula, batez ere, zehatz mehatz jakinda zertarako izango den diru asko aurrez dezakegulako aurrekontuari dagokionez. Kontua da nahasmasa ez sortzea, hau da, edozein erabileratarako eraikina egin, diru gehiago gastatu eta azkenean egoki ez izatea. Behin betiko proiektua eta horren helburu nagusiak erabaki aurretik ere, erabilerari zehazteari buruz ari naiz, ahalik eta eraginkorren izan dadin. Horretaz ari nintzen.

**JON ANDER ALTUBE (eus).**- Sí, quizás, para explicar bien el asunto: tenemos un anteproyecto, no es un proyecto de ejecución y también existe un presupuesto. Creo que se ha actuado con bastante prudencia y también creo que, cuando tengamos el proyecto de ejecución, al definir con precisión lo que queremos, los costes se reducirán, sin lugar a dudas. Eso está claro.

Y por otro lado, también en relación con el presupuesto, se ha actuado con gran prudencia y moderación en la previsión de subvenciones. Por un lado, tenemos unas subvenciones mínimas y unos gastos mínimos asegurados y, por otro lado, creo que esos gastos se reducirán bastante cuando hagamos el proyecto de ejecución y fijemos los usos.

De todos modos, comparto lo que has dicho: antes de confeccionar el proyecto de ejecución, tendremos que saber qué vamos a hacer allí. Pero el objetivo de todo esto era poder presentar algo en Diputación. Ese algo tenía que tener un mínimo de entidad y de este modo la hemos conseguido.



aurretik eztabaidatu beharko dugu zertarako nahi dugu hori.

Antes del proyecto de ejecución tendremos que discutir para qué lo queremos.

Beste eztabaidarik ez badago bozketari ekingo diogu.

Y si no hay otro particular, procederemos a la votación.

**Segituan bozkatu da eta bertaratutakoek aho batez onartu dute, eta botazioaren emaitza hauxe izan da:**

**Sometida a votación, es aprobada por unanimidad de los presentes, con el siguiente resultado:**

**Alde: BILDU (3), EAJ/PNV (5), OMNIA (4) eta PP (1).**

**A favor: BILDU (3), EAJ/PNV (5), OMNIA (4), y PP (1).**

Gai gehiagorik ez izanik, alkateak bilera amaitutzat jo du hamazortziak eta hogeitabostak izanik.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las dieciocho horas y veinticinco minutos.